

Balio proposamena

EcoTask gure enpresa Euskadin sortutako mugikor aplikazio bat da eta bere helburua ingurumenaren aldeko ekintzak sustatzea eta saritzea da. Aplikazioaren bitartez erabiltzaileek guk ezarritako ekintza ekologikoak egin eta partekatu ditzakete eta horiek egiterakoan puntu batzuk jasotzen dituzte eta puntu horiek sari moduan erabili ditzakete. Erabiltzaile bakoitzak bere profila izango du eta bertan agertuko dira egindako ekintza guztiak. Era berean erabiltzaileek mailaz igo ahal izango dute haien konpromisoaren arabera eta maila altuagoetan sari eta puntu hobeak izango dituzte baina erronkak ere zailagoak izango dira. Horrela aplikazioa joko moduan aurkezten dugu gazteak erakartzeko eta motibatzeke. Helburua da gazteek ohitura ekologiko onak hartzea eta ohitura horiek erabilia gure planeta zaintzen laguntzea.